

XALBADOR

KOLEGIOA

2017/2018

Aurkibidea – aintzin solasa	3
KOLEGIOA EZAGUTU	
Planoa	4
Hizkuntza berezitasuna	5
Ikastetxe proiektua	
Berezitasunak	6
Egitura	7
Finantzak	9
Kolegioaren historikoa	10
BIZIA KOLEGIOAN	
Kopuruak	12
Ordutegia	
Zikloa eta orientazia	13
Jantegi – Garraio - IDZ	14
IEP	15
PEDAGOGIA	
Zentzua bilatzen duen pedagogia	23
Proiektu eta baliabideak	
Ikasleen jarraipena	25
Proiektu pedagogiko bereziak	26
Ateraldiak	27
Burasoekilako harremanak	29
Pedagogi aktiboa	30
Bizi, harreman sozializatze gunea	31
Eranskina :	
Barne Araudia eta estatutuak	
Kolegio erreforma	
Azterketen emaitzak	
Orientazio	

Buraso guzietan

Eskuan duzuen dosierra ikasle eta buraso berriei zuzendua da, bereziki.


Seigarreneko urtearekin, esperientzia berri bat hasten da ikaslearentzat, sei urte gutienez iraunen duena, hautatuko duen adarraren arabera (adar orokorra, teknologikoa edo profesionala).

Mundu berri eta ezezaguna beraz ikaslearentzat : gai berri batzuk ikasiko ditu, lan metodo berriak irakasle berri eta anitzekin...

Mundu berri hau, interesgarri hau, ikasleak pixkanaka ezagutuko du, irakasle eta beste ikasleen laguntzaren bidez.

Urrats horietan laguntzeko, bai ikaslea bera, bai burasoak, “Xalbador Kolegioa” aurkezten duen liburuxka hau egin dugu hainbat aspektu agerian emanez : ibilmoldea, ikasgaiak, pedagogia eta hezkuntza taldea, biziaren antolaketa...

KOLEGIOA EZAGUTU



Hizkuntza berezitasunarekin, etengabeko desafioa den kolegioa

Gaur egun, Ipar Euskal Herriko arlo kultural eta linguistikoan, Kanboko Xalbador Kolegioa, [Lartabaleko Erdozaintzi Etxart](#) eta [Ziburuko P. Larzabal kolegioak](#), ikasketa eta harremanetan euskara erabiltzen duten kolegio bakarrak dira.

Europa eleanitzaren barnean, gure ikastetxeek euskarari irakaskuntza-hizkuntzaren estatutu osoa ematen diote eta, halaber, gure herriaren nortasun kulturalaren eratzean parte hartzen dute.

Ikastetxe-proiektu bat

Ama ikastolaren eta lehen mailaren jarraipen eta osagaia, gaztearen funtsezko heziketa bermatzen duena : [Seaska](#)ren filosofiari jarraituz, "*... Euskal gazte ireki, arduradun eta herritarra garatzea ahalbidetzen duena ...*" (ikus Seaskaren hezkuntza proiektua), "*...denentzat ezagutua den formakuntza...*" helburu orokorra lortzeko duen arduraz kontziente dena, helburu zehatzen gauzatzearen berme diren komunitateko partaide bakoitzari bere tokia ematen diona.

BEREZITASUNAK

Hautu linguistikoa

Gure ikastegiak lehen mailako ikastoletan obratu irakaskuntza sistemaren jarraitzeko xedea du, erran nahi baita, euskara zein frantses hizkuntzen oinarritzko ezagutzen ikasketa eta jabetza ahalbidetzen duen sistema. Horrez gain, beren eguneroko biziaren ekitaldi guziak euskaraz bizitzeko ahala eskaintzen die ikasleei.

“Euskaraz bizi” programak laguntzen gaitu helburu horren betetzen, pedagogia arloan zein ikastolaren bizian.

Euskara da kolegioko komunikazio hizkuntza bakarra : ikasleen eskutan diren tresnak (lotura-liburuxka, ebaluazio fitxak) euskaraz eginak dira (itzulpenak zurkaitzak egiten ditu zurkaizgo egunean). Ildo berean, gelako kontseiluak euskaraz egiten dira, buraso erdaldunei laguntza eskainiz.

Hautu pedagogikoa

Hona gure ikastetxeko egitasmoaren xedeak,

- ikasle guziei oinarritzko ezagutzen eskaintzea,
- behar bereziak dituzten ikasleen integratzea gure sisteman,
- ahalmen urriko ikasleak integratzea gure sisteman
- gazteak berehalako edo ondorengo formazio ekintzetan erabili ahalko dituzten jarrera intelektualetara moldatzea.

Hauei esker aukera ukanen dute,

- Frantsesa eta Euskara menperatzeaz gain, beste bi mintzaira ikasteko,
- kolegioaren bukaeran, beren orientabideak hautatzeko gaitasuna emanen dien ezagutza maila lortzeko.

Hezkuntza hautua

Hona gure ikastetxeko egitasmoaren xedeak,

- nerabearen nortasunaren bermatze eta garapenean esku hartzea,
- nerabearen sozializatzearen laguntzea,
- ikasleak ardurak hartzen usatzea, ikastegiaren proiektuan eta ibilmoldean inplikatur,
- nerabe bakoitzaren beharrak kontuan hartzea,

biharko gizon eta emazteak, herritar gisa, bizi pertsonalean zein profesionalean beren biziaren jabe izan daitezen.

EGITURAK

SEASKA : Iparraldeko Ikastoletako buraso, ikasle eta langile guziak biltzen ditu.

IKASTOLEN KONTSEILUA : Ikastoletako Biltzar Nagusietan hautatu buraso eta langileen ordezkariak osatzen dute.

BULEGO ERAGILEA : Ikastolen Kontseiluko kideen artean hautatu buraso eta langileek osatzen dute.

XALBADOR BILTZAR NAGUSIA : Xalbador kolegioko buraso eta langile guziak osatzen dute.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA : Honela osatua da : 9 buraso eta langileen 2 ordezkari, Lan batzordeetako 3 ordezkari, (Besta, Euskaraz Bizi, Hezkuntza taldekoak) Kolegioko zuzendaria (bozkatzeko ahalmenik gabe) Seaskako Bulego Eragileko kide bat, gure eskaeraren arabera parte hartzen ahal duena

XALBADOR KIROL ELKARTEA ASS : Kirol irakasle batek kudeatua. Elkartearen bulegoa honela osatua da : Lehendakaria : Kolegioko zuzendaria, Diruzain eta idazkaria : gorputz heziketako irakasleak

TXIRINBITO : Burasoek eta hezkuntza aholkulariak kudeatua.

JANTEGI : Haren Biltzar Nagusia jantegia erabiltzen duten eskoletako burasoen ordezkariak osatzen dute.



Ikastolen Kontseilua
Norabide orokorrak
erabakitzen eta Seaskako
kondoak boskatzen dituen

Bulego Eragilea
Seaskak kudeatua.
Ikastolen Kontseiluak bozkatua.
I.K.-ak hartutako erabakien
aplikapena

Biltzar nagusia
Gutienez urtean bi aldiz biltzen da.
Norabide orokorrak erabakitzen eta
Xalbador kolegioko konduak bozkatzen ditu :
9 buraso Administrazio kontseiluan
6 buraso Ikastolen kontseiluan
5 buraso Jantegiko Biltzar
Nagusian parte hartzeko

Jantegi
Kanboko eskola batzuetako
burasoek kudeatzen duten
eskolako jantegia

Administrazio Kontseilua
Hilero biltzen da.
Biltzar Nagusiak hartutako erabakien aplikapena
zaintzen du eta Xalbador Kolegioa
kudeatzen, diru, lan-postu, pedagogia
eta eskolako biziaren arloetan.
Txostenak prestatzen ditu
Biltzar Nagusiak onartzeko gisan eta
ikastolako elkartearen bizia animatzen du

Txirinbito
Eskolako liburuak, gelaz
kanpoko jarduerak eta
elkarguneak kudeatzen
dituen elkarte

Xalbador kirol elkarte
A.S.S.

Finantzak

Hilabete saria

Xalbador kolegioan eskolatuak diren haurren kopuruaren arabera kalkulatua eta urtean 12 hilabetez ordaindu behar dena.

Emaitza hau gutienekoa da, eta gehiago ematen ahal dutenak ongi etorriak dira. Ikasturte hastapenean (izen-ematearen egunean) hilabeteko diru kopuruaren engaiamendua eskatuko diegu familiei.

Hilabete saria kolegioan

Haur 1 kolegioan	43 €
2 haur kolegioan	76 €
3 haur kolegioan	92€

Ordaintze erak :

- txekez : *Xalbador Kolegioa*-ren izenean
- diru hartze automatikoa (kudeaketa errexten digu)

Eskolako gastuak

Eskolako liburuak	Ikasleka	18
Kudeantza	Familiaka	23
Materiala	Ikasleka	31
Elkartasun kutxa	Ikasleka	15
Igeri lekua	6.eko ikasleak (2 ziklo)	10
	5. eta 4.eko ikasleak (ziklo 1)	5

Barne araudia

Administrazio Kontseiluak onartua. Ikasleen lotura liburuxkan lotua da.

Ikaslearen izen-emateak [barne araudia](#)ren onespena ondorioztatzen du.

Kolegioaren historikoa

1983an, buraso eta irakasle suhar batzuek ikastolen abenturaren segitzea erabaki zuten, bigarren mailako ikastetxe bat sortuz. Bi urtez, kostaldeko toki desberdinetan ibilirik, ikastegia Kanboko « Nere Pentzea » etxean finkatua izan zen, eta hori, buraso, irakasle, Euskal Herriko eta urrunagoko adiskideen kar indartsuari esker. Asteburu osoak lanean kitorik aritzeak, enpresen eskaintzak, molde askotako partelertasunak, horiek oro beharrezkoak izan ziren ikastetxearen handitzeko, eta denbora berea, talde pedagogikoen engaiamenduaren sustatzeko.

Lan ezagutua :

1983 : Lehenbiziko hitzarmena Hezkunde Ministeritza / Seaska Lehen biziko diru sartze publikoak

1994 : Elkarte kontratupeko hitzarmena Eskunde Ministeritza / Seaska Lehenbiziko ikuskaritzak

2009 : Hiru urterako hitzarmena Hezkunde Ministeritza / Seaska / Euskararen Erakunde publikoa (2012 berritua) Murgiltze ereduaren ezagupena

2015 : Hiru urterako hitzarmen berria

Proiektu pedagogiko berrizale bat :

- Osoki euskaraz
- Ikasgaien gurutzaketan eta partaidetzan oinarritua
- Ikasle bakoitza izan dadin sortzailea, autonomia eta zinezko herritara
- Ikasle bakoitza molde egokian lagundua izan dadin



Elkarrekin eraiki dezagun ikastetxe bat pedagogia alorreko behar berriei erantzuteko

Xalbador kolegioa da :

- Orotara, 2129 m² eraikin, 12300m² lur zelaietan 350 ikasle errezibitzeko
- Gela berezi bat Inklusiorako Egitura Pedagogikoarentzat
- 11 ikasgela handi, 7 gela-erdi talde lanentzat
- Fisika laborategia
- Bizia eta lurraren zientzien gela

- Teknologia laborategia
- Arte Plastika gela
- Musika gela
- Informatika gela
- Informazio eta Dokumentazio Zentroa IDZ
- Gorputz Heziketa eremua, alda gelak, dutxak
- ikasleendako 2 egon gela
- ezker pareta
- eremu estalia
- esku baloi eta aire baloiko eremua
- jolasteko eta egoteko hektarea bateko eremua
- komunak
- irakasleendako lan gela eta egon gela
- administrazio bulegoak : zuzendaritza, kontularitza, idazkaritza
- eskola bizitzaren bulegoak : heskuntza aholkulariaren bulegoa, zaindaritza, erizaindegia
- Aparkalekua

Euskararen salbatzeko biderik egokiena murgiltze irakaskuntza, biharko herritarra bere aniztasunean moldatuko duen pedagogia bati uztartuz. Euskararen transmisioa, duela hogeita hamar urte bezala, gu denen eginbide premiatsua da

BIZIA KOLEGIOAN

Talde Profesionala

Zuzendaritza : zuzendaria, hezkuntza aholkularia, kontularia eta idazkaria
Hogeita hamaika irakasle (28 ikastetxeari lotuak),
Dokumentalista bat,
Hiru laguntzaile (AESH)
Hiru eskolako hezitzaile,
Bi langile mantenu sailean eta zaindaritzan ere aritzen direnak,
Beste bi langile kantinarako bidean ikasleak zaintzen dituztenak.

2017/2018ko kopuruak :

329 ikasle
Seigarreneko 4 gela = 88 ikasle
Bostgarreneko 3 gela = 66 ikasle
Laugarreneko 4 gela = 97 ikasle
Hirugarreneko 3 gela = 78 ikasle

2018/2019ko aurreikuspenak

317 ikasle
Seigarreneko 3 gela = 66 (22 gelaka)
Bostgarreneko 3 gela = 88 ikasle (29 gelaka)
Laugarreneko 3 gela = 66 ikasle (22 ikasle)
Hirugarreneko 3 gela = 97 ikasle (32 ikasle)

Ordutegia

Kursoak 45 minututakoak dira. Badira 5 saio goizean (15'-ko aire-hartzea goizaren erdian eta 5'-ko pausa azken saioa aitzin) eta 3 saio arratsaldean (15'-ko pausarekin).

Egunero asteazkena izan ezik :

8:35etatik 12:40etara eta 14:00etatik 16:30etara

Asteazkenetan : 8:35etatik 12:00etara, 25'-ko pausa luze batekin

Ordutegi sistema hau iaz estreinatu genuen : 45'-ko saioak binaka lotuz 1,5 h-ko “bloke” bat sortzen da. Helburua da ikaslearen ordutegia eta antolaketa errextea. Honi esker LP (Lan Pertsonalizatua) orduak ikasgaietatik “ateratzen” dira, eta zurrak taldeetan eramaten dira (13 ikasle, maila guzietakoak, 2 saio astean). Bilan bat egin eta erabaki da blokeekin segitzea aurrean ere.

Irakaskuntza orduen banaketa

Ikasarloak	6.etan	5 .etan	4 .etan	3.etan
Euskara	4	4	4	4
Frantsesa	4,5	4,5	4,5	4
1.hizkuntza	4	3	3	3
2.hizkuntza	-	2,5	2,5	2,5
Hist.Geo herritar heziketa	3	3	3	3,5
Biologia	2	2	2	2
Fisika	1	2	2	2
Matematikak	4,5	3,5	3,5	3,5
Teknologia	1	2	2	2
Arte plastikoak	1	1	1	1
Musika	1	1	1	1
Gorputz heziketa	4	3	3	3
Laguntza pertsonalizatua	2	2	2	2
Kontzertazio/bilan ordua	1	1	1	1
Estudio	2(+1)	0,5(+1)	0,5(+1)	0,5(+1)
Orotara	36	36	36	36

Zikloak eta orientazioa

2 ziklo daude kolegioan :

- **3. zikloa** : lehen mailako azken bi urteak eta 6.a
- **4. zikloa** : 5.a, 4.a eta 3.a

Ziklo bakoitzaren bukaeran zikloko konpetentzien lorpena ebaluatzen da.

Orientazioaren prozedura :

2. hiruhilekoan :

- familiak hautatu orientabideari dagozkion nahiak idatziz jakinarazten ditu ematen zaion lotura fitxaren bidez.
- Zuzendariaren erantzuna.

3. hiruhilekoan :

- 2. hiruhileko prozedura bera.
- Ondotik, desadostasun kasuetan, burasoak zuzendariarekin biltzen dira.

Desadostasunak irauten badu, Dei Batzordea bil daiteke. Batzorde horren erabakia behin betikoa da.

Txirinbito

Elkarguneak eta jarduerak kudeatzeko.

Jantegia

Artzamendi SIVUak kudeatzen du Jantegi. Jantegik bere administrazio kontseilua eta bere barne araudia ditu XALBADOR kolegioak bi ordezkari ditu AKn, eta haiekin harremana egin daiteke beharrez. Egunean 1400 apairu eginak dira, 1000 self gisa. Ikasleek 3 txanda desberdinetan bazkaltzen dute. 20 minutu jarririk badute ikasleek jateko.

2008az geroztik autobusez joaten ziren ikasleak Jantegira (seguritatea eta ardura maila aztertu ondoan, AK-k hartu zuen erabakia). Iaz bidaien parte bat oinez egiten hasi ginen, eta helburua genuen autobusen kentzea, gastuak murrizteko, ingurumena zaintzeko, autobusak sortzen duen estresa tipitzeko eta ibiltzea osasuntsua delako. Aurten helburua bete dugu. 6 langile okupatzen dira ikasleen zainketaz bidean.

Zuzendaria : Hervé ETCHEBARNE - Telefonoa : 05.59.93.65.18 - Kantinako telefonoa : 05.59.29.98.01
<http://www.jantegi.fr/>

Eskola garraioa

Garraioa Kontseilu Nagusiaren eta familien ardurapean da. Kontseilu Nagusiak bere barne-araudia badu, eta zuen seme-alabaren izena ematean jasoko duzue.

<http://www.transports64.fr/scolaires>

Kolegioan, urtero aipatzen dira ikasleen eskubideak eta bete beharrak.

Zailtasunik baldin bada, guri seinalatu behar dira, kolegioan konpontzeko gisan, edo beharrez Kontseilu Nagusiko arduradunarekin.

Beste ikastetxeetako ikasleekin gure ikasleek egunero erabiltzen dituzten lerroak : Hazparne eta bere inguruetatik, Baiona, Uztaritze, Itsasu, Ainhoa, Arrosa.

Informazio eta dokumentazio zentroa (IDZ)

- Ekitaldi pedagogikoak
- Urtero aberastua eta modernizatua
- Informatikaz kudeatua
- Munduari lotua

Ibilmoldea :

Dokumentazio eta Informazio zentroa zabalik da aire hartzeetan. Estudio denboretan, ikasleek talde ttipika eta klase erdika erabiltzen dute, dokumentalistak eta gaiko irakasleak elkarrekin finkatu lan espezifikoen egiteko.

IDZ-k ondoko zerbitzuak eskaintzen ditu :

- Tokian berean irakurketa librea : literatura, aldizkariak, prentsa...
- mailegutzak etxean irakurtzeko,
- informazio bilaketa eta dokumentuekin burutu lanketak, zentroko ontasunak baliatuz (liburu, CD-ROM eta beste) baita kanpoko datu baseak ere, dokumentalistaren laguntzarekin,

Internet sarean ibiliz.

IEP (Inklusiorako Egitura Pedagogikoa)

1. SAR HITZA

a. Marko juridiko eta administratiboa

1982an sortua eta Hezkunde Ministerioarekiko kontratu pean den kolegioa da Xalbador eta bere baitan 295 ikasle eskolatzen ditu 6. mailatik 3. mailaraino. Ikastetxe honetan, ikasleek herri elkargoko kantinan bazkaltzeko aukera dute. Irakaskuntza osoa euskaraz proposatua da, murgiltze sisteman aurkitzen garelarik.

2010-2011 sartzera, eta lehen aldikotz Seaskan, Inklusiorako Egitura Pedagogikoa (IEP) baten irekitzea erabakia izan da. Kolegioaren dispositibo bat da (eta ez gela bat). Honen proiektu integratzailea ikastetxearen proiektuan sartzen da.

Ikaslea, printzipioz bere adinari doakion erreferentziazko gelan da eta bere beharren arabera IEP-era doa. Hau da inklusioaren berezko printzipioa, hots, eskolak bere sistema moldatzen duela pertsona orori egokia izan dadin (eta ez pertsona sistemari egokitzen). Honela, ahalmen urriko ikaslea, lehenik eta behin bertzeak bezalako ikasle bat da. Ondorioz, ikastetxearen barne araudia errespetatu behar du eta proposatu jarduera desberdinetan parte hartu.

b. Marko geografikoa

Xalbador kolegioa, KANBOn kokatzen da. Aire hartze gune gisa duen parke handi bat dauka baita ere ikasgelak banatuak diren hiru eraikin, ezker paretan bat eta kanpoko anfiteatro bat.

IEP gela, erabilerraza den eraikin batean kokatzen da.

c. Nori zuzendua

IEP egiturak arazo kognitiboak, sensorialak eta motrizitate mailakoak dituzten 11 - 16 urte bitarteko nerabeak kolegioan (eta adin horretatik gorakoak lizeoan) errezibitzen ditu, kopuru ttipitan. MDPH egiturak (Departamenduko Ahalmen urriko Pertsonen Etxea) segitzen dituen ahalmen urriko haurrak dira beraz.

Ahalmen urriko pertsonen autonomia eta eskubideen batzordeak (CDAPH) pertsona hauen eskubide orori doazkien erabakiak hartzen ditu (alokazio onespenean, diru laguntzak, materiala, giza-laguntzak... eta orientazioa). Batzorde honek baimentzen du ikasle baten sarrera IEP-ean, eta urtero ikaslearen egoera berraztertzen. Batzordeak proposaturik, akademiako ikuskaritzak esleipena gauzatzen du. IEP-ak lau motakoak dira : adimen mailako ahalmen urriko gazteei zuzendua dena (IEP1) ; entzumen mailakoei (IEP2) ; ikusmen mailakoei (IEP3) eta motrizitate mailakoei (IEP4). Gaur egun ezinezkoa zaigu lau IEP-en irekitzea Seaska baitan. Horregatik ikasleak Xalbadorreko IEP-ean eskolatuak izan dira beren desberdintasunekin.

Ikasle horiek IEP euskarriaz balia daitezke duten komunikazio gaitasuna ikasketekin, elkarbizitzarekin eta elkar-heziketa egoerekin bateragarri delarik.

Eskolak soilik ezin du IEP euskarrian sartzen den ikasle baten garapen hobereana segurtatu ;

horregatik, ikasleak hezkuntza mailako laguntza edota laguntza terapeutikoa jasotzen ahalko du.

d. Dispositiboaren antolaketa

IEP-ren printzipioa, ahalmen urriko ikasleei ikasbide egokitu baten eskaintzea da. Karia horretara, egokitzapen batzuk proposatuak dira :

- **Ordutegi egokitua**

- IEP-ak 21 irakaskuntza ordu proposatzen ditu. Ikasle horiek beraz ordutegi desberdina dute eta ondorioz laguntza terapeutikoa eskola garaian sartzeko ahala eskaintzen zaie. Alabaina, haurren proiektuaren arabera, eskola denbora 21 ordu baino gehiago izatea gerta daiteke erreferentziazko gelako kurtsoak sartuz.

- 1. Ikastetxearen irekitze orduak :

- astelehen, astearte, ostegun, ostirala : 8:35 – 12:15 / Jantokia / 13:50 – 16:35
- asteazkena : 8:35 – 12:30

- 2. IEP -aren irekitze orduak :

- astelehen, astearte, osteguna : 8:35 – 12:15 / Jantokia / 13:50 – 15:30
- asteazkena : hetsia
- ostirala : 8:35 – 12:15 / Jantokia / 13:50 – 14:40

8:35etan iristen diren ikasleek, beren proiektuaren arabera, edo erreferentziazko gelako kurtso bat segitzen dute, edo lan egokitu batekin IDZ-ra joaten dira.

- **Ikastetxeko zuzendaria**

Kolegioko bertze irakasleentzat bezala, IEP-eko irakasleak ikastetxeko zuzendariaren ardurapean dira. Honek irakaskuntzaren, orientazioaren eta ezagutzen ebaluaketan iragan molde ona bermatzen duelarik.

- **IEP-eko irakasleak**

Lehen mailako irakasle berezituak dira, ahal bezain bat CAPA-SH tituludunak (Certificat d'Aptitude Professionnelle pour les Aides spécialisées, les enseignements adaptés et la scolarisation des élèves en Situation de Handicap). Beren zereginak hauek dira :

- Ekintza guzien antolatzea, kudeatzea eta koordinatzea ;
- Lan programa baten moldatzea ;
- Ikasgaien edukia haur bakoitzari egokitzea, sakontzeak proposatzea, ikasle bakoitzari doakion proiektu berezitu baten finkatzea, gaitasunen liburuxkaren osatzea ;
- Bertze irakasleentzat eta eskola bizitzarentzat erreferentea izatea ;
- Ikasleak orientazio proiekturantz bideratzea ;
- Ikasleak hurbiletik jarraitzea ;
- Familien solaskide nagusia izatea.

- **Eskola bizitzarako laguntzaile kolektiboak**

(AVS-Co) Irakasle berezituak, eskola inklusio prozesua ahalegintzeko ardura duten AVS-Co laguntzaileak badituzte. AVS-Co laguntzaileak ikasleari laguntza ekartzen dio (edo IEP-ean, edo erreferentziazko gelan beharren arabera). Edozein kasutan laguntzailea ikaslearekin delarik irakasleak ere hor izan behar du (jakinez dokumentalista honela kontsideratua dela).

AVS-Co laguntzailearen zereginak hauek dira :

- lasaitzea ;
- arreta zaintzea ;
- antolaketan laguntzea ;
- kurtsuan zehar ulermenaren hobetzeko laguntza puntualak eskaintzea (konsignak errepikatu / birformulatu eta abar...);
- idazkari funtzioa (irakurtzea, idazketara pasatzea, eta abar...);
- eta abar.

Irakaslea eta AVS-Co laguntzailearen arteko elkarlana derrigorrezkoa da. AVS-Co denbora osoz (astelehena, asteartea, osteguna ta ostirala 8:35tik 16:30 arte) arituko da aire hartze eta kantinako garaian hurrekin izateko.

- **Erreferentziazko gela eta IEP-aren arteko lotura**

Ikaslearen proiektuaren arabera eta erreferentziazko gelako irakaslearekin adostasunean, irakasle berezituak urtean zehar moldagarria izan daitekeen ordutegia osatuko du, ikaslearen aitzinamenduak edo zailtasunak kontuan harturik. Erreferentziazko gela eta IEP-aren arteko lotura, hainbat moldetan antola daiteke :

1. Irakasleak, erreferentziazko gelan ikasgai bat bere osotasunean segitzen du. Ahalmen urriko haurra ikasgaiari doakion irakaslearen ardurapean da bai lana, bai jarreraren aldetik. Aldiz, irakasle guztiek IEP-eko irakasleari dei egin liezaioteko edukia edota formari doazkion egokitzapenen proposatzeko. Ikaslearen proiektuaren arabera, ebaluaketak gelan egoera arruntean iragan daitezke, edo egokitzapen batzuekin, edota AVS-Co-aren laguntzarekin. Ebaluaketak IEP gelan ere egin daitezke.
2. Irakasleak, erreferentziazko gelan ikasgai bat moduluka segitzen du (tratatutako gaien eta erabilitako euskarrien arabera). IEP-aren baitan, irakasleak modulu horiek berriz lantzen ditu, bertze ikasgaiekiko loturak egiteko, e.a.
3. Erreferentziazko gelako irakasleak IEP-aren esparruan kurtsuak proposatzen ditu.
4. Irakaslea, ikasgai batzuentzat, bertze heineko gela arrunt batean ibiltzen da, programa osoki edo moduluka, egokitzapen eta laguntzarekin edo gabe segitzen duelarik.

2. LORTZEKO DIREN HELBURUAK

IEP-ak hiru helburu ditu :

- Gaztearen autonomia pertsonala eta soziala indartzen ahalegintzea

- Sozial eta eskolako ikaspenak, elkar bizitzarako arauen onarpena garatzea, baita ere komunikazio gaitasunak hobetzea ;
- Adostutako lanbide proiektu bat epe luzean gauzatzea.

a. Autonomia

Pertsona bat autonomia bilakatzen da bere baitatik dituen beharrak neurtzen eta asebetetzen dituelarik ingurumena errespetatuz. Helburua da beraz :

- Kolegioko harat-honatan, eguneroko jasetan, materialaren eta lan metodoaren kudeaketan bere autonomiaren garatzea ;
- Bere proiektuaren eragile bilakitzea. Karia horretara, bilkura ezberdinetan parte har dezan proposatzea garrantzitsua iruditzen zaigu.

b. Eskolako eta sozial mailako ikaspenak

Helburuetariko bat da ikasleari eskaintzea ongi sentituko den eta eskola-sozial ikaspenak lortuko dituen ibilbide egoki bat.

Erreferentziak gelaren esparruan, ikasleak programa ofiziala segitzen du (edo osoki edo moduluka), baita ere gelako proiektuak egokitzen batzuekin eta behar orduan AVS-co laguntzarekin. Elkarrekin bizitzeko, ikasle jardura ikasteko eta bertzeekiko loturak sortzeko gune bat da ere.

IEP-aren esparruan, helburua da bakoitzaren gaitasunak indartzea eta garatzea (irakurketa, idazketa, matematikak, denbora eta espazioa, metodologia eta materialaren kudeaketa) programa ofizialetan eta « socle commun » delakoan oinarrituz. Horretarako, garrantzitsua da haurrak dituen zailtasunak aitzinetik kontuan hartzea : kurtsoen aurretik edota ondotik laguntzak proposatu, forma edota eduki pedagogikoa egokitu, helburuak neurtu, bere emaitzak baikortu eta baloratu eta abar. IEP-a lasaitzeko, segurtamena emateko gune bat da ere.

Ikastetxearen bizi esparruan, ikasleak proiektu eta jardura ezberdinetan parte hartu behar du. «**Hezkuntz Aholkulari Nagusiak** IEPeko ikasleen parte hartzea hezkuntza, kultura eta kirol jardueretan ahalegintzen du baita ere elkarbizitzarako (bazkaltze, permanentzia, aire-hartze) denboraldien antolaketa on bat segurtatzen du» (Bulletin officiel n°28 du 15 juillet 2010).

c. Lanbide proiektua

4. mailatik goiti, irakasle berezituak ikaslearen lanbide proiektua lantzen du bere orientazioa prestatzeko gisan, ikastaldi guneak atzemanaz eta ikaslea bere lanbide proiektuaren eraikitzen lagunduz.

Horretarako :

- ikasturte hasieran, ikastaldi sektoreen arabera, IEP-eko irakaslea eta Seaskako aholkularia entseu batzuekin harremanetan sartuko dira eta Seaskako gurasoei e-mail bat bidaliko diete ;
- ikastaldi data ikasturte hasieratik planifikatuak izanen dira ;
- eraikitako ikastaldi konbenio berezitua erabiliko da.

3. HELBURU HAUEN BETETZEKO BIDERATU BALIABIDEAK

a. Tresna pedagogikoak

- **Eskolatze Proiektu Pertsonalizatuaren atal pedagogikoa (GEVA-Sco)** PPS-ak, eskola eta ekintza pedagogiko, psikologiko, hezkuntza arloko, sozial arloko baita ere medikuntza eta paramedikuntza arlokoen jarraipen arauak zehazten ditu. Adu ezberdinez osaturiko taldeak (EP) du obratzen eta CDA-k adosten.

Kolegio esparruan, IEP-eko irakasleak, bertze irakasleekin egindako elkarlanarekin eta aholkulariaren laguntzarekin, Eskolatze Proiektu Pertsonalizatuaren atal pedagogikoa bete behar du (GECA-Sco). Inklusiorako gaietzat, irakasleek dute haien parte osatu behar. Elkar bizitzarentzat, HAN-ari GEVA-Scoaren ale bat ematen zaio bere xehetasunak ekartzeko. Trimestroka berritzen den proiektua da bertan idatzia den azalpenetan oinarrituz.

- **Hiruhileko ebaluaketa fitxa** Ikastetxeko hilabeteko nota agiria ereduzat hartuz, erreferentziazko gelan segitu ikasgaiak dira soilik agertzen irakasleen nota eta oharrekin. Alabaina, kodetze sistema bat martxan jarria izanen da adierazteko kurtsoa edo ebaluaketa egokituak izan direla.
- **Segipen fitxa berezitua** Hiruhileko ebaluaketa fitxarekin batera, IEP-eko irakasleak, ikasleak segitu programa, baita ere burutu ebaluaketak aurkezten duen eta lortzeko diren zeharkako kompetentziak eta gaitasun akademikoak garatzen dituen segipen fitxa berezitu bat ematen du.
Fitxa honek fite irakurtzen den argazki baten emateko helburua du, beste guztia PPSan garatua baita.
- **Lotura liburuxka** .Honi esker, Eskolako Hezkuntza Taldeak, kolegioaren elkar bizitza denboraldien esparruan IEP-eko ikasleei buruzko ohar ezberdinak idatz ditzake eta beraz IEPeko irakaslea eta laguntzailearen arteko lotura errextu.

b. Proiektuak

- **IEParen proiektuak**

IEP-aren esparruan, irakasle adituak gai baten inguruan proiektu bereziak obra ditzake (erreferentziazko gelekina lotura segurtatuz edo ez). Helburua, proiektu konkretu baten inguruan zeharkako kompetentziak eta gaitasun akademikoak uztartzea litzateke, ikasleen alde azkarretan oinarrituz, ikasleak lorpen egoera batean kokatuz.

- **Ikastetxearen proiektuak**

(eskolako ateraldiak, IALA, Lan Lagunduak, lantegiko ikastaldia, UNSS, bide seguritate agiria, eta abar ...). Ikasle bakoitzaren ahalekin arabera, ikastetxeko jardura eta proiektuetan parte hartzea eskatua izanen zaie.

- **Ahalmen urritasunaren prebentzio proiektua**

Ikasturte hastapenean, 6.mailako gelakoei ahalmen urritasuna aurkeztua izanen zaie baita ere IEP-aren dispositiboa. Helburua da nagusiki ahalmen urritasuna desberdintasun gisa

aurkeztea, denak ezberdinak garela printzipiotzat hartuz eta elkertasuna, errespetua, berdintasuna eta tolerantzia baloreak indartuz. Posible da ikasturtean zehar, euskarri eta animazio ezberdinen bidez jarraipen baten aurreikustea.

c. Talde lana

Honelako proiektu batean, IEP-a ikastetxearen bizi eta proiektuan osoki parte hartzaile izan dadin, talde lana ezinbestekoa iruditzen zaigu. Irakasle berezituari beraz, erreferentziazko irakasleekiko, zuzendariarekiko, hezkuntza taldearekiko (hezkuntza aholkulari nagusia eta hezitzaileak) etengabeko lotura bermatu behar zaio, koordinatuz. Argi da trukaketa horiek finkatuak ez diren denboraldietan ere iragan daitezkeela, baina une baten plangintzatzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Honela,

- IEP-eko irakasleak astearte oroz irakasle eta hezitzaile taldearekiko kontzertazio bilkuran aipagai baten aurkezteko eskaera egiten ahal du ;
- Hiruhileko kontseiluak informazio trukaketa eta gogoeta baten momentua izan behar du ;
- Urtean bi aldiz egiten den ikasleen itzulia zentzu honetan baliatzen ahal da.

Bestalde, IEP-eko irakasle eta AVS-Co-ari begira :

- astero, IEP-eko irakaslea, kolegioko zuzendaria, aholkulari nagusia eta beharren arabera AVS-Co bilduko dira bilan baten egiteko. Gaien arabera, Seaskako aholkularia deitua izanen da ;
- garaika, IEP-eko AVS-Co eta kolegioko AVS-i guztien arteko bilkura bat antolatuko da, Seaskako aholkulariak eta kolegioko zuzendariak animaturik, hoiien pratika eta bizipena aipatzeko.

d. Familiekiko lana

Burasoek proiektuan osoki parte hartzen dute eta beraz hainbat hitzordu antolatuak dira, hala nola :

- Irailan, asteazken eguerdi batez, burasoak IEP egituraren aurkezpen batetara gomituak dira.
- Urrian, irakasleak hauraren beharrak neurtu, helburuak finkatu eta ordutegi bat plangintzatu ondoren, eskolatzeko segipen talde bat (ESS) proposatua da eskolatzeko proiektu pertsonalizatuaren (GEVA-Sco) adosteko.
- Abenduan, 1. trimestroko zurkaizgoa (tutorea eta IEPko erakaslea) beharren arabera antolatua da hiruilaren bilan baten egiteko. Burrasoei hiruhileko ebaluaketa fitxa eta segipen berizi fitxa ematen zaie.
- eskolatzeko segipen talde bat (ESS) proposatua da ondoko ikasturteko beharren neurtzeko. Bigarren hiruhileko bilan bat egiten da eta ebaluaketa fitxa, segipen bereizi fitxa ematen. (2. trimestroko zurkaizgoa ordezkatzeko du).
- Ekainean, 3. trimestroko zurkaizgoa (tutorea eta IEPko erakaslea) beharren arabera antolatua da hirugarren hiruita eta urteko bilanaren egiteko, baita ere ondoko ikasturteko proiektuaren egokitzeke.

e. Kanpoko talde profesionalekiko lana

Familiaren adostasunarekin, IEP-eko irakaslea kanpoko profesionalekin (psikologo, ortofonista, ergoterapeuta, e.a.) harremanetan sar daiteke, eskola proiektuaren esparruan ezinbestekoa iruditzen bazaio. Bestalde, kanpoko profesionalari proposatua izanen zaio, hiruhilean behin iraganen diren bilan bilkuretan parte hartzea.

f. Finkatu bilkurak

- **Hezkuntza taldea (EE)**

Parte hartzen dute : ikasleak (nahi badu), IEP-eko irakasleak, AVS-co laguntzaileak, hezkuntza aholkulari nagusiak/zuzendariak, tutoreak, burasoak, Integrazio Batzordea burasoen elkarteko ordezkariak, ahalmen urriko haurren segipenaz arduratzen den Seaskako aholkulariak.

- **Eskolatze segipen taldea (ESS)**

Irakasle erreferentearen kabuz, **Eskolatze segipen talde** bati esker egin ohar guziak batera daitezke eta bidean den eskolatze proiektu pertsonalizatuari (PPS) moldaketak proposa daitezke.

Parte hartzen dute : Hezkunde ministerioko irakasle erreferenteak, ikastetxeko zuzendariak, kanpoko profesionalak, ikasleak (nahi badu), IEP-eko irakasleak, AVS-co laguntzaileak, hezkuntza aholkulari nagusiak, tutoreak, Integrazio Batzordea burasoen elkarteko ordezkariak, ahalmen urriko haurren segipenaz arduratzen den Seaskako aholkulariak.

ESS-en antolatzeke, Seaskako aholkulariak hitzordua finkatzen du Hezkunde Nazionaleko erreferentearekin eta data kolegioko zuzendariari komunikatzen du erakasle/guraso/kanpoko profesionalarekin lotura egiteko.

EE-en antolatzeke Seaskako aholkulariak hitzordua finkatzen du eta data kolegioko zuzendariari komunikatzen du erakasle/guraso/kanpoko profesionalarekin lotura egiteko.

g. Ahalmen urriko haurren eskolatzeaz arduratzen den Seaskako aholkulariaren laguntza

Seaskako aholkulariak, hiruhilean behin behaketa saio bat antolatzen du baita ere irakasle berezitua, hezitzailea, laguntzailea eta irakasle taldearekin lotura segurtatzen. Proiektuen muntatzeko, egokitzapenak ikertzeko, helburuen neurtzeko laguntza ekartzen du. Aholkulariak, hezkuntza taldean eta eskolatze segipen taldean parte hartzen du.

4. BURURAPENA

IEP dispositiboa, hezkuntza prozesuko fase bat da. Ikasleek, lehenik eta behin beren baitako konfiantza berreskuratu behar dute baita ere lorpen eta aitzinamendu sentimendua bizi izan. Irakaskuntza egoki eta maiz berezitu bat beharrezkoa da, bakoitzaren beharrei erantzuteko eta bakoitza ahal bezain autonomoa bilaka dadin.

IEP dispositiboa Kolegioko egitura bat da, hala nola ikastetxearen eta beraz Seaskaren proiektuetan sartzen den egitura bat da. Ondorioz, euskarak erakaskuntza eta komunikazio hizkuntza izan behar

da. Hala ere, IEP dispositibotik pasatzen diren ikasleak ahalmen urriko haurrak dira, eta beraz euskara integratzeko zailtasunak ukaiten ahal dituzte. Dena den, ikasleak euskaraz mintzatzeko indarrak egiten eta ulermen maila minimoa duen bitartean, onartu eta egokitu behar zaio.

Glosarioa

AEEH : Allocation d'Education de l'Enfant Handicapé

ASH : Adaptation scolaire et Scolarisation des élèves Handicapés

AVS-I : Auxiliaire de Vie Scolaire (inclusion Individuelle)

AVS-Co : Auxiliaire de Vie Scolaire (inclusion Collective)

CAMSP : Centre d'Action Médico-Sociale Précoce

CCI : Conseiller Chargé de l'Inclusion

CDAPH : Commission des Droits et de l'Autonomie des Personnes Handicapées

CDAV : Centre de Déficients Auditifs et Visuels

CLIS : Classe d'Inclusion Scolaire

CMP : Centre Médico-Psychologique

CMPP : Centre Médico-Psycho-Pédagogique

DIB : Délégué d'Integrazio Batzordea

EPE : Equipe Pluridisciplinaire d'Evaluation

EREA : Etablissement Régional d'Enseignement Adapté

ESS : Equipe de Suivi de la Scolarisation

GEVA-Sco : volet pédagogique du PPS

IME : Institut Médico-Educatif

ITEP : Institut Thérapeutique Educatif et Pédagogique

MDPH : Maison Départementale des Personnes Handicapées

PAI : Projet d'Accueil Individualisé

PCH : Plan de Compensation du Handicap

PMI : Protection Maternelle et Infantile

PPS : Projet Personnalisé de Scolarisation

SAAAIS : Service d'Aide à l'Acquisition de l'Autonomie et à l'Inclusion Scolaire (déficients visuels)

SEES : Section d'Enseignement et d'Education Spécialisés (déficients auditifs et visuels difficilement « intégrables »)

SEGPA : Section d'Enseignement Général et Professionnel Adapté

SESSAD : Section d'Education Spécialisée et de Soins à Domicile

SSEFIS : Service de Soutien à l'Education Familiale et à l'Inclusion Scolaire (déficients auditifs)

UPI : Unité Pédagogique d'Inclusion devenue

ULIS : Unité Localisée pour l'Inclusion Scolaire

PEDAGOGIA

Zentzua bilatzen duen pedagogia : aitzina jotzen duen pedagogia

Kurrikulumak, gaitasunen oinarri bateratuak finkatu norabideetan

Konpetentziak deituriko 8 atalek dute liburuxka apailatzen. Zortzi konpetentzia hauek ezagutza eta gaitasunen oinarri komuna osatzen dute, hots eskolaren geroari buruzko legeak zehazten dituen oinarrizko jakitateak.

- Jakite eta gaitasunetan-eskakizun maila berdina segurtatzeko ikasle guzietan,
- norberaren geroa eta gero profesionala eraikitzeke,
- bizi osoan zehar, beren buruan formatzen segitzeko medioak ukan ditzaten

2009ko sartzetik goiti bideratuak den proiektua eta baliabideak

Helburuak :

- Ikasgaien arteko zentzua eta loturak indartzea,
- Adimen forma desberdinak azkartzea,
- Elkarlana ikastea, ahozkoa menperatzea, gogoeta kritikoaren garapena laguntzea,

➤ Usaiako kurtsoak

- Kurtsoak, ikasleen jakitate eta gaitasun anitzen arabera antolatuak dira. Ikasleen arabera egokituak izan daitezke (zailtasunetan diren ikasleak, adimen urritasuna duten ikasleak (Seaskaren Integrazio Batzordea eta MDPHen parte hartzearekin, IEP egiturakoak besteak beste).
- Irakasle bakoitzak ikasleengandik igurikatzen duena zehaztu behar du. Hala nola :
 - lanaren antolaketa,
 - idazlanen aurkezpena,
 - ikasteko erabiliak diren metodoak,
 - ebaluazio moduak, e.a.
- Kurtso denboran, irakasleak ikasleek ikasten dutenari zentzua bilatzen diotela zaindu behar du. Norberaren eta taldearen ikerketa laguntzen du.
- Ebaluazio formatzailea erabilia da (notatua ez dena) ikasleak bere ezagutzen, baliabideen eta ahultasunen maila azter dezan. Horrek beharrezkoak diren jakitateen jabe izateko eta tresna intelektualen lortzeko bidean ezartzen du ikaslea.

- Konpetentzien bidezko hezkuntza (socle commun de connaissances, de compétences et de culture) eta euskal kurrikuluma-k finkatu helburuen betetzea, egoera konplexu eta anitzen bidez

- Prozesu honen bukaeran ebaluazio somatiboa (notatua dena) egiten da.
- Aurten 6 eta 5.etan notarik gabeko ebaluazio esperimentatzen da. Konpetentziak ebaluatzen dira.
- Pedagogia ikasleen beharrei egokitzea da irakasle guziena grina.

➤ **Gaiarteko Irakaskuntza Praktikoa (GIP). 5.ean, 4.ean eta 3.ean**

Gai desberdinen artean proiektu bat eraikitzen da, tematika baten inguruan gaiartekotasuna lantzeko. Irakasle bakoitzak bere gaiko ordutegian egiten du lanketa, eta denen artean ekoizpen konkretu bat adosten dute. Ekoizpena ebaluatua da. 8 arloren artean 6 hautatzen dira eta urtean bi GIP lantzen dira.

5.etan

- Izenburua zehaztekoa
Arloa : Gorputza, osasuna, ongizatea eta segurtasuna
Parte hartzen dutenak : GH, Bio, Mat
Ekoizpena : Osagarri liburuxka bat sortu
- Izenburua : **Non ura, han bizia**
Arloa : Trantsizio ekologikoa eta garapen jasangarria.
Parte hartzen dutenak : HG, Fisika, Tekno
Ekoizpena : Uraren kudeaketa egoki baterako aditu txosten bat idatzi estatu batentzat

4.etan

- Izenburua : **bidaiatuz hizkuntzak landu**
Arloa : Tokiko eta atzerriko hizkuntzak.
Parte hartzen dutenak : Hizkuntzak Eus
Ekoizpena : Turismo gida bat eraiki.
- Izenburua : **XIX. Mendeko jendartera bidai**
Arloa : Informazioa, komunikazioa, herritartasuna.
Parte hartzen dutenak : HG, IDZ eta Fr
Ekoizpena : Garai hartako eremuan egunkari digital bat sortu.

3.etan

- Izenburua : **Kontrakultura 1960eko hamarkadan.**
Arloa : Kultura eta sorkuntza artistikoa.
Parte hartzen dutenak : Artea eta Musika, Fr, hizkuntzak eta EUS
Ekoizpena : Ekoizpen plastikoekin diaporama bat sortu
- **Soziolinguistika ikerleta**
Arloa : euskararen erabilpena neurtzea.
Parte hartzen dutenak : MAT eta EUS
Ekoizpena : txosten bat sortu herrietako informazioekin (grafikoak)

➤ **IALA (Ikasgaien Arteko Lan Asteak)**

Bi IALA antolatuta dira urtean zehar (aurten ere bakarra, kolegioaren erreformak sortu lan zama kontuan hartuz)..

Kolegioko ikasle guzietan gai bakarra eta berdina lantzen dute (aurtengoa “Kolegioan lasaitasunez loratui”).

Gai hau mailaka lantzen da molde desberdinez : astelehen-astearte-asteazkenetan, kurtso, bisita eta kanpoko aditu batzuen parte-hartzearen bidez.

Ortzegunean eta ortziraile goizean, ikasleak zurrkaintz taldeetan elkartzen dira, maila desberdinetako 3 edo 4 ikasletako azpi taldeak osatzeko, norberaren ahozkoa eta ekoizpen kolektiboaren prestatzeko. Ortziraile arratsaldean ikasleen lanen aurkezpena, epaimahai batek ebaluatua. Irakasleekin batera behatzaile gisa buraso, hezkuntza taldeko kide edota Seaskako profesionalek parte har dezakete.

➤ **Sostengua gai nagusietan**

Hezkunde nazionalak ematen duen ordu kopuruaren arabera. Bitan zatituak diren geletan beren beharren arabera bilduak dira ikasleak, edo bestela gela berean bi irakasle sartuz. Aurten 6.etan matematiketan antolatua izan da.

➤ **Zurrkaintza eta lan pertsonalizatua (LP)**

Zurrkaintz taldeak, maila desberdinetako ikasleak osatuak dira, ikasleen arteko ezagutza eta harremanen laguntzeko. Zurrkaintzak, taldea 2 edo 3 orren astean hartzen du egunaren azken orduan:

- 2 orenez lan pertsonalean laguntzeko. Metodologia, gaietan laguntza, etxeko lanen egitea, konpetentzia batzuen lanketa...

- orren bateko bilana zurrkaintz taldeetan, edo gelako kontzertazio orena bilakatzen ahal dena.

➤ **Ahalmen urriko ikasleen integrazioa**

- Eskolako ingurumen arruntean (Seaskako Integrazio Batzordearen dispositiboaren laguntzarekin)

- **IEP**-en (inklusionarako egitura pedagogikoa). Seaskan inklusionarako egitura pedagogiko baten irekitzea erabaki da lehen aldikoz 2010eko sartzean eta Xalbadorren kokapen geografikoarengatik. (Ikus proiektu osoa 14. or.)

- Ikasle bakoitzari proiektu egokitua bere erreferentzia gelako ahal bezain bat kurtso segi dezan. Egitasmo horrek etengabeko elkarlan handia erakartzen du IEPeko irakaslea eta besteen artean.

Ikaslearen jarraipena

- Irakasle bakoitzak bere ikas-arloan
- Zurrkaintzak
- Hezkuntza aholkulariak
- Eta zuzendariak kasu batzuetan, urtean zehar, irakasle eta burasoen arteko bilkuretan :
 - Ikasturte hastapenean, aurkezpen bilkuran
 - Zurrkaintzakoan

Ikasleen aitzinamendua neurtzeko tresnak :

➤ **EASYSCOL**

Etxeko lanak ez ditzaten ahantz edota kontsignak gaizki hartuak baldin badira zuzen ditzaten, ikasleak eta familiak Easyscol gunea balia dezake, non irakasleak etxeko lanak eta ebaluazio egunak idazten dituen. Familia bakoitzak erabiltzaile-izen bat eta pasahitza jasotzen du, eta bere haurren testu-kaiera, emaitzak eta eskola bizitzari buruzko informazioak segi ditzake.

➤ **LOTURA LIBURUXKA**

Lotura liburuxkaren helburu nagusiak :

ikastetxe, buraso eta ikasleen arteko lotura atxikitzea,
ikasleen jarrerak, ikas prozesuari eta edozeri buruzko informazioak pasatzea.

➤ **EBALUAZIO FITXA (URTEAN 3) HIRUHILEKOAREN BUKAERAN.**

Irakasleak ikaslearen lana eta jarrerari buruzko fitxa bat betetzen du eta ikaslearekin komentatzen

Irakasleak eta zuzendaritza biltzen dira informazio guzien batzeko eta sintesiaren egiteko, ikaslearen emaitzen ebaluatzeko eta bere ikasketen eta orientazioari buruzko proposamenen egiteko. Ikasleak bere ebaluazio fitxa guziki atxikitzen ditu bere burasoek izenpetu ondoren. Horrela fitxa batetik bestera bere emaitzen gorabeherak segitzen ahal ditu

Euskarazko irakaskuntza murgiltze sistemaren bidez gure berezitasuna izanik, euskara menperatzea, gehitzen den kompetentzia bat da.

➤ **KONTRATUA**

gelako kontseiluak edo hezkuntza taldeko partaide batek proposatzen ahal du. Ikasleak eta bere burasoek onartua. Talde pedagogikoak proposatu aterabideetan ikaslearen inplikazioa du helburu.

Proiektu pedagogiko bereziak mailaka

SEIGARRENETAN

• **5. urtekoak (CM2) eta 6.ekoen arteko lotura**

CM2ko ikasleen bisita gisa honetan antolatua da :

- ikastetxearen bisita,
- 5.eko kurtso batean parte hartzea,
- aire hartzean beste ikasleekin egotea.

Lehen mailako burasoekin informazio bilkura eta ikastegiaren bisita egiten dira,

Lehen mailako irakasleei, beren ikasle ohien hiruhileko ebaluazio fitxak igortzen zaizkie.

• **Ikasleen ongi etorria eskola sartze egunean**

6.eko ikasleek lehen eguna ahal bezain ongi bizi dezaten, bi egunetan egiten da eskola sartzea.

- 1. eguna 6.eko ikasleentzat da bakarrik. Ikasleek geletako irakasle arduraduna eta tutorearekin pasatzen dute lehen egun hau. Antolaketa berezi bat proposatua da ikasleen integrazioa eta lehen urratsak erresteko ikastetxean.

- 2. egunean denak elkarrekin.

• **Metodologia laguntza**

Zurkaitzak animatua Lan Pertsonalizatu orduetan edo gelako irakasle arduradunak kontzertazio

orduetan. Helburua da ikasleen laguntzea

ikastetxea eta honen ibilmoldea ezagut ditzaten,

funtsezko prozedurak (egiten jakitea) kausi ditzaten, hala nola, beren materiala ekartzen, testu kaiera erabiltzen, kaierak eta sailkatzaileak erabiltzen, beren astea antolatzen jakin dezaten.

prozedura intelektualak gara ditzaten, hala nola, oinarriko buru-eragiketak landuz eta garatuz, ikasgaiak ikasten, lanak egiten eta aurkezten ikas dezaten, alde batetik ; so eginez, galderak eginez, deskribatuz, asmatuz, definituz, irudikatuz, beste aldetik.

SEIGARREN eta BOSTGARRENETAN

- **JUUL kanpaina**, dokumentalistak antolaturik.

Zer da : haurren irakurketaren zaletasuna elikatzeko helburuarekin, Nafarroko Ikastolen Elkarteak antolatzen dituen liburuen eta liburu ilustratzaileen hauteskundeak dira.

Helburua : - Haurrek gustukoak dituzten euskaraz idatzitako liburuak hautatzea. Ikasleak jarriko ditugu epaile. Beraz, ikasleek haututako liburuak, beraiek hautatuak izan behar dute eta ez, guk irakurtzera behartuak.

- Haurrek gustukoak dituzten liburuen ilustratzaileak aukeratzea

- **BOOKTRAILER** proiektuaren bidez Kanbon antolatua den “Elepika” festibalean 5.ek parte hartzen dute
- 4.ean literaturari buruzko lan berezi bat eramaten da.

HIRUGARRENETAN

- **Orientazioari buruzko hezkuntza**

Ikasleen proiektuak geroari buruz : irakasle bat astean 3 orduz horretara emana da, eta ikasleak bakarka hartzen ditu. Orientazioari lotuak diren informazioak ikasle eta familietan zabaltzen ditu.

Helburua : egitasmoen hautatzea, errealitatea kontuan hartuz eta bururatzeko urratsak planifikatuz

- bakoitzaren hautuaren arabera jarriz,
- informazioak hartuz,
- erabaki bat hartzera saiatuz,
- urratsak planifikatuz.

Ateraldi pedagogikoak

« kanpoko lana, eskola eremuan edo auzoetan usaiazko irakaskuntzako ekintza bat da.

Urrunago joanez egiten ahal diren ateraldiak, duten interes pedagogikoen arabera hautatuak dira“. Buletin Ofizialak

SEIGARRENETAN

- Frantseseko kurtsoei loturik, **zinema saioak** (collège au cinéma). Urtean bi filmaren lanketa gai desberdinetan eta proiektzioa.
- **Urte hastapeneko 2 eguneko** adaptazio egonaldia, Xalbadorren berean kanpatuz.

Helburuak :

euskara : euskara munduan murgiltzea urte hasieratik sustatzea

elkar-ezagutza : ikasleen arteko harremanak sustatzea, bai eta ikasle-irakasleen artekoak

BOSTGARRENETAN :

- **Donostiako Eureka !_zientzi_parkea**
Helburuak : fisika gai berria izanik 5.eko ikasleentzat, euskarazko tailerretan lan egiteko aukera ematea (elektrizitatea, astronomia), eta museoaren bisita egitea. Bisita hau Tolosako ateraldiaren baitan egiten da.
- **“Arberoa haranaren ezagutza”** – Biologiako programari lotua (PAC). Egun bateko ateraldia
- **“Baiona erdi aroan”** - frantsesa / historia geografia gaiartearen kari. Egun bateko ateraldia
- **“Tolosako Laskorain ikastolarekiko trukea”** : bikoteak osaturik, 3 egun haien etxeetan, eta 3 egun hemengo etxeetan. Helburuak : euskararen erabilpena sustatzea hegoaldeko ikastetxe bateko ikasleekin trukaketa eginez, harremanak, beste eskualde baten ezagutza.

LAUGARRENETAN :

- Frantseseko kurtsoei loturik, **zinema saioak** (collège au cinéma). Urtean bi filmaren lanketa gai desberdinetan eta proiektzioa.
- **Egonaldi linguistikoak** : Santanderren (Gaztelera lehen hizkuntza dutenentzat) eta Bilbon (ingelesko murgiltze osoan, ingelesa 1. hizkuntza dutenentzat), 3. hiruhilekoan.

Helburuak :

Santander : beste herrialde bateko bizimodua deskubritzea (orduak, etxeak, janaria..) museoak, arkitektura, artea ahozko entzumena eta adierazpena lantzea, arratsak familia batean pasatuz (murgiltze linguistikoa) munduarekiko irekitasuna, kuriositatea piztea talde baten bizia, harreman sozialak.

Bilbo : ingelesa praktikatzea, aste bat monitore ingelesekin egonez ; Bilbo eta bere inguruak ezagutzea ; aterbe batean iraganen da aste hori, Ikastolen Elkartearen "Enjoy English" programaren eskutik.

- Frantseseko kurtsoei loturik, **zinema saioak**, 3 bisita **mediatekara**, **Arnagaren** bisita...
- **Durangoko euskal liburu eta disko azoka**. Dokumentalistak eta euskara irakasleek antolatu ateraldia. Helburua : Arloka (liburu, aldizkari, disko, CD-ROM ...) urtean zehar euskaraz argitaratzen denaren berri hartzea eta ondotik aurkeztea

HIRUGARRENETAN :

- **Irakasgaien arteko proiektuak – ekintza kulturala** : PAK deituriko proiektua Luhusoko Hameka egiturarekin elkarlanean. Aurtengo gaiak : “Mendiz mendi” eta “Kabaret”.
Helburuak : Ikasketei zentzu gehiago ematea, ikasleek gai desberdinen arteko koherentzia ikus dezaten ; Sorkuntza artistikoan ikasleak inplikatu. Gorputz heziketan eta hainbat gaitan (euskara-frantsesa-historia geografia-gaztelera) gogoetan sartzen dira. Gaiaren inguruan, maila desberdinetan, (dantza, musika, mugimendua, antzerkia...) aste bateko lana eramaten da, eta emanaldi batekin bururatzen da Bastidan.
- **Etxepare**_lizeoa - ikastetxearen bisita, bigarren orokorra eta teknologikoaren ikasketen aurkezpena.
- Carrefour des formations – orientazioari buruz
- Hiru eguneko **enpresetako ikastaroa** : lan mundua deskubritzeko, ikasle bakoitzaren proiektu pertsonalaren eraikitzen laguntzeko.

BURASOEKILAKO HARREMAN HERTSIAK

Heziketaren egile desberdinak bildu nahi ditugu haien osagarritasuna kontuan hartuz. Arlo guzietako heziketa, sortegunetik azken eguna arte beren buruaren jabe diren helduak izaten ikastea da.

Familia heziketak, ikasketek, moldakuntzek, “ikaste” hau dute helburu.

➤ **Burasoen ongi etorria :**

Burasoen sartzeko administratiboa, eskola sartzearen aitzineko larunbatean egiten da. Burasoak gomitatzen ditugu kolegiar ikaslearen dosier administratiboaren osatzeko eta eskola liburuaren eskuratzeko.

Zuzendariak eta HAN-ek animatu bilkura batean elkartzen dira buraso guziak Seaskaren eta Xalbadorren proiektuak aipatzeko. 6.eko irakasle arduradunak ere hor dira goiz horretan eta giro goxoa hasteko urtea. Gelen osaketa sartzeko lehen egunean emanen da. Horretarako irizpide hauek kontuan hartzen dira : hizkuntza, sexua, jatorria, zailtasunak, 1. mailako irakasleen aholkuak...

Burasoak, beren haurrentzako hautatu duten hezkuntza sistemaren partaide dira eta honako arloetan inplikatzeko dira :

➤ **Kudeaketa arloan :**

- Biltzar Nagusian (urtean bi aldiz biltzen da).
- Administrazio Kontseiluan (hilabete behin).
- Lan taldeetan sartuz (obrak, pesta, Euskaraz Bizi,

➤ **Pedagogia arloan :**

- **Gela- kontseiluak** – ikasle eta burasoen ordezkariak kontseiluaren lehen partean parte hartzen dute : gelako giroa, laneko giroa, harremanak, diziplina...

➤ **Zurkaizgoan :**

Ikasle bakoitzak zurkaitz bat du eta irakasle bakoitzak hamalau bat ikasle ditu zurkaizgoan.

Helburuak : ikaslearen ikasketak eta jarrerak hurbiletik segitzea da, ikasle-buraso-profesional-zuzendaritzaren arteko lotura atxikiz.

Zurkaitz, buraso eta ikaslearen arteko elkartzeko instituzionala hiruhilekoan behin, gela-kontseiluaren ondotik.

➤ **Hezkuntza arloan :**

- **Hezkuntza taldea** – hilabete behin biltzen da. Interesatuak diren buraso eta hezkuntza taldeko partaideak biltzen ditu, baita kolegioko zuzendaria eta hezkuntza aholkularia ere. Ikastetxearen proiektuari buruzko gogoeta eta iritzien trukatzeko gunea da. Hezkuntza taldeak Administrazio Kontseiluak eman misioak lantzen ahal ditu (adibidez Barne Araudia,...).

Biltzar horien aipagaiak :

- **Geletako bilkuretan** : geletako irakasle arduradunak animaturik, ikasturte hastapenean antolatutako dira : helburuen eta programen aurkezpena, geletako burasoen 2 ordezkarien hautatzea...

- Hezkuntza
- ko-hezkuntzaren balorizazioa

Gai bati buruzko gaualdien antolaketa.

Hitzaldiak antola daitezke, hala nola : orientazioa, toxikomaniak, internet...

Pedagogia aktiboa, hezkuntza talde motibatua

Mota desberdinetako lan metodoak erabiltzen dira, ikasleak bere jakintzak eraiki ditzan. Helburu pedagogiko nagusietariko bat da taldeko ikerketa edota ikerketa pertsonalean sakontzea.

➤ **Pedagogia taldearen antolaketa**

Mailaka :

Geletako irakasle arduradunak astero biltzen dira zuzendaria eta hezkuntza aholkulariarekin. Bilkura horiek irakasleen ordutegian sartuak dira.

Helburuak : Mailaka koherentzia atxikitzea arlo desberdinetan :

- gelaren jarraipenean : lan giroa, jarrerak eta abar,
- ikaslearen jarraipenean,
- ikastetxea eta gelaren arteko lotura (ikasleen kontzertazio orduak),
- ikasleen igurikatzeei erantzuteko,
- proiektuen obratzeko.

Gaika :

Ber gaiko irakasleen arteko bilkura.

Helburuak : Ondoko arloei dagokienez, koherentzia segurtatzea ber gaiko irakasleen artean :

- programen jarraipena, lan metodoak, ebaluazio, proiektu berezien eramateak, ikasleen jarraipena,

Astearteroko irakasleen kontzertazio bilkurak, arratsaldeko 17:00etatik 18:30etara, irakasle guziak gehi hezkuntza talde osoa biltzen ditu :

- Elkarrekiko gogoetak trukatzeko, ikasleen jarraipena, proiektuen finkatzeko eta ikastetxearen proiektuari dagokion zer-nahiren bideratzeko.

Pedagogia egunetako gaiak, hiruhilekoan behin, partaide guzien artean erabakitzen dira eta formakuntza beharrei lotuak dira :

- praktika pedagogikoak,
- ikasteko bide desberdinetan oinarritzen den pedagogia,
- ebaluazioa, eta abar.
- proiektu berezien eramatea eta jarraitzea,

Kanpoko profesional bat etorrarazten ahal dugu.

Kolegioa, bizi, harreman eta sozializatze gunea

➤ **Kontzertazioa / bilan ordua**

Astearte batzuetan (bilan orduarekin aldizkatuz), oren bat klase guzietan, ikasleen ordutegian sartua eta irakasle arduradunak animatua.

Helburua :

- Ikasleak beren estatutuaz, eskubideez eta betebeharez kontzientzia hartzea,
- Komunikazioa segurtatzea ikasle eta instituzioaren artean,
- Ikaslea, eskola biziaren aktore bilakatzea.

➤ **Ikasleen ordezkariak**

Gelaka bi ordezkari, ikasturte hastapenean ikasleek hautatuak, gela eta hezkuntza taldearen arteko lotura segurtatuko dutenak.

Hezkuntza aholkulariarekin biltzen dira hilabetean behin eta gehiago ere beharren arabera (biltzarren prestakuntza, arazoei buruzko eztabaidak, kolegioko bizia...).

Ordezkarien parte hartzea gelako kontseiluaren lehen zatian : lan giroa, arazo bereziak, diziplina, ... Ordezkarien formakuntza ikastaro puntaletan egingo da, Hezkuntza Aholkulariaren eskutik.

• **Elkarguneak eta jardueren sustatzeko gunea**

Eguneroko biziaren aberasteko, elkarren ezagutzaren laguntzeko, irakaskuntzako gaietatik kanpoko ekimenak proposatzen zaizkie ikasleei, Hezkuntza Aholkulariak kudeatzen dituen elkargune desberdinak daude :

• **ikasleen txokoa :**

Egunero ikasleen elkarbizitza laguntzeko, HAN ek txokoa animatzen du, mahai-jokoak antolatuz. Gorputz Heziketa irakaslearekin lotura eginez (AS), ahal bezain bat animazio bultzatzen da (adibidez, zirko inimiztasia, mahai-joko txapelketak... Euskara batzordearen dantza ikastaldiak/mus txapelketa/ ikasleei zuzendua den informazio gune baten sortzea/edo ikasleek proposatutako beste ekimenak... urtez urte alda daitezkeenak).

Gune horretan, IEP gelako edo ezintasun berezi bat duten ikasleen beharrak eta segipena arretaz segitzen eta laguntzen dira, ikasle bakoitzaren integrazioa lagunduz, bakoitzaren berezitasuna kontuan hartuz, laguntzaile bereziturik (AVS) ez duten ikasleen segipen hurbila eginez, besteak beste...

• **Euskara batzordea :**

Euskararen erabilpena ikastetxeko eremu guzietan bultzatu nahi duten pertsonak bildu dituen taldea dugu. Urtean zehar, ekimen desberdinak asmatu eta proposatzen ditu, talde honetako protagonistak ikasleak direlarik. Irakasle talde bat eta Hezkuntza aholkularia dira talde horren animatzaileak. Azken urteetan 3.eko ikasleak sartzeko indar bat egin da, protagonista bilaka daitezkeen beste ikasleen aitzinean.

• **Animazio egunak :**

Urtean bi, Txokoak duen ber helburuarekin, elkarren arteko harremanak, elkar bizitzaren laguntzea dute helburu.

Ikasleek egin proposamenetarik abiatuz eta ikasleekin antolatzea da xedea.

Euskara batzordeko kide hautatuek egun horietarik baten antolaketa beren gain hartzen dute (Korrika / Euskararen eguna edo beste...)

- **Sentsibilizazio kanpainak :**

Urtean zehar, kanpoko profesionalen edo eremu horietan lan egiten duten elkarteen eskutik prebentzio saileko ekimen batzuk antolatzen ditugu (HIESA, toxikomaniak, sexualitatea, bortizkeria, etab.)

- **Xalbador kirol elkartea :**

Kolegio bakoitzak bere kirol elkartea osatzen du, kolegioaren zuzendariaren gain delarik horren lehendakaritza eramatea. Elkartearen helburua kirol jardueren antolatzea eta kirol praktikak bultzatzea da.

- **Kantinatik landa**, kirol animazio ziklo batzu proposatzen zaizkie ikasleei, gorputz heziketa irakasle batek animaturik : futbito (futbol txapelketa), pilota txapelketa, zirko eta abar... Urtean zehar, eta ordutegietatik kanpo, aste buruetan edota asteazken arratsaldeetan, ateraldi batzuetan parte hartzeko posibilitatea eskaintzen zaie ikasleei : elurretara, eskalada, etab. Aktibitate guztiak kolegioaren ardura pean dira.

Kirol elkartean, ikasleen esku-hartzea bultzatzen da, klaseka arduradunak izendatuz,

- kirol ekitaldien proposamenen egiteko,
- ping-pong gelaren kudeaketa beren gain hartuz.

Aurten bi tailer plantan emanak izan dira kantinatik landa ere : koroa eta antzerkia. Koroak proiektu bat lantzen du Niko Etxartekin bere kantuen kantatzeko, MEEK eko eta Donibane Garaziko zitadelako koroerekin, bai eta ere Garazi Baikgorriko musika eskolarekin.

- **Zakuaren pisua**

Ikasle batzuei, kutxen erabilpena zaila zaie (puskak ahanzteko beldurra). Haatik, zakuaren arintzeko baitezpadakoa da. Arlo hori irakasle arduradunekin landua izanen da.

- **Euskararen tokia**

Urtero eta urte guzian zehar gai honen inguruan lanean gabiltza.

EUSKARAZ BIZI proiektuaren barne gara, eta bakoitza horretan inplikatzeko da.

Euskararen erabilpena helburu nagusietariko bat da proiektu guzietan, eta ahal bezain naturalki euskaraz komunikatzen saiatzen gara.

Indar handiak ari gara egiten kurtsoetatik kanpo euskararen erabilpenaren azkartzeko, baikorra eta erakargarria izanen den dinamika batean.

Zurkaitz talde bakoitzak EUSKARA BATZORDEko ordezkari bat izendatua da, eta hilabetean bi aldiz biltzen dira HANekin, ekintza batzuen antolatzeko. Ondotik gelakideekin lotura egiten da.

Arlo horretan, zenbait ekintza antolatuak dira : esku lanak, mahai-jokoak, mus txapelketa, dantza saioak...

- **Jantziak**

Hobe markatzea. Jantzi kopuru handia galtzen da urtean zehar. Ematen, botatzen edo saltzen dira

Eranskina

BARNE ARAUDIA

2017-2018

XALBADOR KOLEGIOKO BARNE ARAUDIA

AINTZIN SOLASA

Ikastegiaren barneko biziaren oreka elkarrekilako konfiantza, norberaren ardura eta bestearekilako begirunean oinarritzen da.

Hein handi batez, norbaiten ongi izatea, taldeak dakartzan oreka, kemena, segurtamenetik dator. Halaber, kide bakotxaren ongi izateak dio taldeari indarra ematen.

Ikasleak, irakasleak, langileak eta burasoak beren arteko harremanetan ispiritu honetan aritzea engaiatzen dira.

Kuadro instituzionala beharrezkoa da norberaren orekatua kausitzeko baita elgarren arteko harremanetan hiritargoa garatzeko.

Helburu honetan bermatuz, Administrazio Kontseiluak bat egiten du Barne Araudi honekin, honek finkatu legeak eskubide eta betebeharretan oinarritzen baitira.

Barne Araudi hau ikasturte guziz berritzen du Administrazio Kontseiluak eta ikastetxeko partaide batek eskaturik, behar izanez gero, arramoldatzen.

Ikaslearen izen-emateak eta beremateak ikastegian, Barne Araudi honen onespina erakartzen du.

Barne Araudia legeztatzen duten erreferentzi testuak : B.O. 9 – 2000/07/13-koa.

1. KAPITULUA

IKASTEGI BARNEKO BIZIA

1. IRAKASKUNTZA – ESKOLATZEA

Irakaskuntza eta komunikazioaren hizkuntza euskara da.

- **Ikastegiko idekitze eta hestearen ordutegia :**

Goizeko 8.15 etatik arratsaldeko 17:00 etara - astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan

Goizeko 8.15 etatik 12.45 etara - asteazkenetan.

- **Kantinatik kanpoko ordutegia :**

Goizeko 8.15 etatik 12.40 etara - Arratsaldeko 14:05 etatik 17:00 etara

Pentsio erdiko ikasleak kantinan bazkaltzera behartuak dira. Besteak eta hauek bakarrik etxerat joaten dira bazkaltzerat.

- Kurtsoak goizeko 8.35 etan eta arratsaldeko 14:05etan hasten, arratsaldeko 16:35etan bukatzeko.

- Bakotxaren betebeharrak tenorez iristea da. Kurtso guzietara tenorez iristea baitezpadakoa da, ustegabeko nagusi baten kasuan salbu.

- **Ibilgailuen aparkalekua :**

Autobusendako aparkalekuan beste ibilgailuak debekatuak dira.

- **Huts egiteen jarraipena :**

Ikasleen presentzia ezinbestekoa da kurtso guzietan. Zuzendariak baimentzen ahal dituen lau egun erdi baino gehiagoko huts egiteak ondoko arrazoinengatik dira :

- erlijiosoa,

- senide baten zentzea edo ezkontza,

- eritasun kutsakorrak,

- gurasoen bidaiak, beste inork ezin dituelarik haurrak begiratu.

Arrazoin hauetarik kanpo, legearen arabera ikaslea ikastetxearen ardurapean denez, abisu ezkor bat emanen luke eta Akademiako Inpektzioa abisatuko.

- Ateratzeko baimenak eta kurtso batzuetako huts egiteko baimenak burasoek idatziz eskaturik Zuzendariak onar lezazke.

- Berant iristen den ikasle oro Eskola-Bizitzaren bulegoratu joanen da, bere lotura fitxan azaldua den berantaren zergatia erakusterat.

- 20 minutu baino gehiagoko beranta delarik ikaslea estudioan egonen da kurtsoa sartu ordez.

- Ikasleen beranta edota huts egitea burasoek jakinaraziko dituzte telefonoz goizeko lehen orduan eta ondoko egunean idatziz baieztatuko.

- Huts egitea, kutsakorra den eritasun batengatik gertatzen delarik –1989ko maiatzaren 3ko dekretuak definitua¹ medikuaren agiria ikaslea eskolara itzul dadin eskatua da.

- Eskola-Bizitzak goizeko eta arratsaldeko lehen orduetan ikasleen presentzia segurtatzen du.

- Ordu bakoitz, ardura pean dituen ikasleen presentzia kontrolatzea eta huts egite berri oro Eskola-Bizitzari jakinaraztea irakasleen betebeharrak sartzeko da.

- Beste edozoin ihardueren kari ikasleen ardura duten helduek ikasleen presentzia zaindu behar dute ere.

- Aintzinetik jakina den erakasle baten huts egitea ikasleen lotura liburuxkan agertu behar da.

- **Gorputz heziketa ez egiteko baimena :**

Gaitasun eza zehazten duen medikuaren agiri baten bidez eskatua da.

Gerta daiteke batzutan trenpean ez izatea ; kasu horietan familiak eskatzen ahalko du –lotura liburuxkaren bidez- ikaslea kirol kurtsoa ez joatea edota estudioan egotea.

Irakaslearen gain izanen da orduan erabaki hartzea ; ikaslea berarekin kurtsoa eramatea ala estudio gelan uztea.

¹ Coqueluche, diphtérie, méningite à méningocoques, poliomyélite, rougeole, oreillons, rubéole, infections à streptocoques hémolytiques du groupe A, fièvres typhoïdes et paratyphoïdes, infections par le VIH ou le virus de l'hépatite B, teignes, tuberculose respiratoire, pédiculose, dysenterie amibienne ou bacillaire, gale, syndrome grippal épidémique, hépatite A, imétigo et autres pyodermites, varicelle.

2. BIZI MOLDE EGOKIA

- **Sakelako telefonoa**

Eskola bizitzaren errespetuz, sakelakoaren edozoin erabilpen debekatua da eskolako tenoreetan 8:15 etatik 16:35 etara.

Ikusiko den sakelakoa, ikasleari berehala kenduko zaio, 16:35etan bere gain izanen delarik bila etortzea eta berreskuratzea duela izenpetzea ;

Bide hau aski ez balitz, barne arautegiko neurriak aplikatuko dira.

- **MP3, Balladeurs eta beste ...**

Gisa berean internet konexioa duen edota soinua edo irudiak har ditzakeen tresna oro debekatua da eskola tenoreetan.

- **Osasunbide**

- **Erremedio, sendagailuak**

Eskola sartzean, haurren osasunari dagokion kasu berezi oro burasoek idatzirik jakinaraziko dute. Tratamendu erregulara ala behin behinekoa segitu behar duen ikaslearen familiak Eskola-Bizitza abisatuko du, medikuaren agiria eta erremedioak emanez.

Medikuaren agiririk gabeko tratamendu oro burasoen abisu idatzi baten bidez jakinaraziko da. Ondorioz ikasleek ez dute erremediorik eraman behar salbu medikuaren agiriak eskatua.

- **Erizaintegia, artamenduak**

Eritasun, aldixartze, istripu edota beharrezko kasuetan, ikaslea Eskola-Bizitzarat eramanen da. Ikaslea bere egoeraren larritasunaren arabera, hospitalerat suhitzailuek edota SAMU-k eramana izanen da edo hurbilen den osasun zentrorat ateraldietan gertatzen bada.

Burasoak ahalik eta lasterren jakinean atxikiak izanen dira.

Eskola sartzeko txostenean den osasunari buruzko fitxa zehazki betetzea behar beharrezkoa da.

- **Nahitarat gertatu lapurketak eta andeatzeak**

Beren hurrek eragin ditzaketen andeatzeen erantzuleak burasoak dira, konponketen gastuak beren gain direlarik (fakturak ordainduz ekonomoaren bulegoan).

Ikasleen pusken andeatzeak edota lapurketak ezin dira administrazioari leporatu. Jantzi edo besteren gainean ikasleen izen deiturak agertzea aholkatua da.

Hiruilekoaren bukaeran, alda geletako atearak idekiko dira, ahantziak diren jantziak bereskuratzeko gisan. Geldituko direnak laguntzako elkarte bati emanen zaizkio.

3. KOLEGIOKO IKASLEEN ESKUBIDEAK

- **Ikaskuntza eta formakuntza ukatearen eskubidea**

- Hitzaren eskubidea :**

Eskubide honek ikasleen arteko harremanak eta ikastegi ta ikasleen artekoak errextea du helburu. Noiz adierazten ahal dute :

- ikasleen ordutegiak barneratzen duen konzertazio orduan geletako irakasle arduradunek kudeatua ;

- zurrkaltzgoan.

- Adierazpen kolektiboaren eskubidea – Iragarkien ezartzea**

Adierazpen askatasuna, aniztasuna, neutraltasuna eta laikotasunaren printzipioen errespetuan oinarrituz egiten da. Iragarkien taula bat bada honetarako.

- Argitalpen eskubidea**

Kolegioko ikasleek argitaratutako testuak, arazorik gabe, ikastegian zabalduak dira. Idatzi hoiak ez dira iraingarriak izan behar. Zuzendariak irakurri ondoren argitaratuko dira.

Ordezkaritzako eskubidea

Ordezkarien betebeharra :

- ikasle, irakasle eta administrazioen arteko lokarriak dira.
- Bi ordezkaririk dira gelaka, ordezkarien ordekoak baitaere. Ikasleek hautatuak dira eskola sartzetik landa, zazpigarren astea baino lehenago. Ikasleak ordezkatzeko dituzte eta informazioak zabaltzen. Ikasleen boz eramaileak dira irakasle eta administrazioarekiko baita alderantziz ere.
- Geletako kontseiluen prestatzeko bilkuran partaideak dira irakasle arduradunekin batera.
- Beren geletako kontseiluaren lehen partean parte hartzen dute. Diziplinaz, kurtso ala etxeko lanetaz zein orientazioaz hitza hartzen ahal dute.
- Burasoekiko geletako bilkuretan parte hartzen dute arduradunek eskatua.
- Ordezkarien papera hobekiago betetzeko formakuntza bat segitzen dute.
- Hauteskundeak baino lehenago, ordezkarien betebeharrari lotuak diren informazioak ematen zaizkie.

Norberako eskubideak

Ikasleek osotasun fisiko eta moralaren ukateko eskubidea dute.

Inork ez du bortizkeri fisikorik zein psikologikorik jasan behar.

Ikasleek, desberdinak izateko, begirunez tratatuak izateko eta informazioen ukateko eskubidea dute.

4. KOLEGIOKO IKASLEEN BETEBEHARRAK

• Portaera orokorra :

Tolerantzia eta besteren begirunea funtsezkoak dira, bakotxaren nortasunean, sinesmenetan eta desberdintasunetan.

Baita materiala eta ontasunen begirunea ere.

Bortizkeria debekatua da, horrela ikasle zein hezkuntz komunitatearen partaideren askatasuna edota duintasunaren kaltean izan daitezkeen edozoin egintza, jestu, ele ez dira onartuko ez eta jasanen, pertsonen segurtasuna zein osasuna arriskuan ezar daitezkenak, irakaskuntzako iharduerak edota irakaslegoaren hezkuntza lana traba ditzaketanak, ordenu publikoa oztopa dezaketanak.

- Jendetasuna eta jokaera zuzena beharrezkoak dira.
- Produktu toxikoak ekartzea edota konsumitzea debekatua da : tabakoa, alkola eta beste droga motak...
- Zorrotz den edozoin tresnen eramatea debekatua da : kutter, bihurkina, punta zorrotzak dituzten aitzurrak eta beste...

• Lanarekiko portaera

- Ikasleek, orduo, kurtsoarako materiala prestatuko dute eta kurtso bukaeran bilduko.
- Lanari egokitua den portaera fisikoa ukanen dute.
- testu kaiera lan tresna bat da zorrotz handiz atxiki behar da.
- irakasleek eskatu lana epeetan itzultzea ikasleen betebeharra da.
- Eskatuak diren ebaluaketak onartzea ikasleen betebeharra da.

• Informazio eta Dokumentazio Zentroa

- Ikasle, irakasle eta ikastegiko langile guzieren zerbitzuko da.
- Bere Barne Araudia dauka, erabiltzaile guzientzako ezagutu behar dutena (agerian emana dena liburutegian).
- Toki honetan, bakarka edo taldezka, lasaitasunean eta ixiltasunean, irakur daiteke, logizielak erabil daitezke, dokumentuekin lan egin daiteke, dokumentuak mailega daitezke. Izendatu iharduera horietarik kanpoko aktibitateak (kalakan artzea, etxeko lanak kopiatzea, jostetan aritzea...) ez dira aizu.
- Dokumentu guzientzako (aldizkariak, komikiak, liburuak, bideoak, CD-ROMak...) behar bezala baliatzeko gisan, artoski zaintzen dira eta dokumentazio zentrotik ateratzen direnak, finkatu epeetan, itzultzen.

- Dokumentalista irakaslea eta Dokumentazio Zentroa ikasgelaren parekoa beraz gainerateko punduetan (ikaslearen eskubideak eta betebeharrak, zigorrak, ...) Ikastegiko Barne Araudia aplikatzen da osoki.

- **Kurtsoen artean**

- Ikasleek ikas geletan egon behar dute.

- Batimendu barneko joan jinak : gela batetik bestera joateko, ikasturte hastapenean ikasleei emanen zaizkien informazioen errespetatzea eskatua zaie, bultzadak lanjerosak izan daitezketelako ez dira onartuak izanen.

- **Aire hartzeak**

- Batimendu guzietako ikasgeletatik, pasa lekuetatik ibiltzea debekatua da.

- Komunak higienako tokiak dira eta ez dute beste erabilpenik.

- Ikastegiaren garbitasuna eta higiena atxikitzen laguntzeko, kanpoko zikin untziak erabiltzea baitezpadakoa da eta tu egitea debekatua da arrunt.

- **Jantegi**

- Ikasleak portaile nagusian bilduko dira eguerdi ta berrogoietatik txandaka autobusez Jantegira joateko ; salbu eta egunero txandakatuz maila oso bat jantegira doala 5. saioaren denboran.

- Jantegiko eremuan portaera zuzena beharrezkoa da Jantegiko araudiak dion bezala.

- **Estudioak**

Estudio zuzenduak dira, norberak bere lana egin dezan lasaitasunean, ixiltasunean eta elgarrekiko begirunean. Ikasleek beren lanerako norberaren laguntza berezia badute begiraleek eskainirik.

- **Garbiketa**

Ikasgela garbiak atxikitzen laguntzeko, ikasleek txandaka garbiketa egiten dute egunaren bukaeran, bigarren txirrinak jo arte. Ikasleen parte hartzea baitezpadakoa da.

- **Abiatzea**

Autobusak jin arte ikasleak ikastegiaren eremuan egoten dira. Begiraleak baimendu ondoren autobusetan igotzen dira.

- **Autobusa huts egiten** duen ikaslea Eskola-Bizitzara joanen da, behar diren neurrien hartzeko.

- **Ateraldi pedagogikoetan** ere ikasleak Barne Araudi honen pean daude.

5. ZIGORRAK

Gure barneko araudiak ikaslea erresponsabilizatzen eta ikastetxe batek dituen hertsipenei bere jokaera egokitzen laguntzea du helburu, norberaren lan mailan zein denen arteko bizian. Zigorren sistema aintzinakorra finkatua da, hezkuntz arloak barneratzen duena, lehentasuna elkarrizketari ematen zaiolarik (konzientzi hartzea laguntzeko gidaria baita). Zigor oro norbanakoa baizik ez daiteke izan.

- Elkarrizketa zuzena ikaslea eta dagokion helduaren artean. Ikaslea auto-diziplina ikasten laguntzeko helburuarekin.
- Zurkaitzaren parte hartzea eskatua da.
- Elkarrizketaren bidez helburua ez bada lortzen, burasoak abisatuak izanen dira eta beharrez bilduak.
- Aintzinetako urratsek arazoari ez badiote aterabiderik ekartzen, Zuzendariak Eskola Bizitzarako Kontseilua biltzen ahalko du. Bere osaketa : ikaslea, bere zurkaitza, bere gelako erakasle arduraduna, Hezkuntz Aholkularia, Zuzendaria baita Kontseiluak edota Zuzendariak bildu nahiko luketen beste edozoin pertsona ere.

A) **Zigor aplikagarriak**

Eskolako zigorrak :

Lan eskasagatik, hezkuntz ekiparen kide orok erabaki ditzakeenak :

- Lotura liburuxkan idatziak ; bi hitz mota : zigorra eta informazioa ;
- Lan gehigarria ;
- Atxikitzea eta lan gehigarria ;
- Atxikitzea eginga izan ez den lan baten egiteko ;

Jarrera desegokiarengatik, hezkuntz ekiparen kide orok erabaki ditzakeenak :

- Lotura liburuxkan idatziak ; bi hitz mota : zigorra eta informazioa;
- Gogoeta lan bat, gertaerari lotua ;
- atxikitzea ;

Atxikiak diren ikasleak asteartetan kurtsoen ondotik ikastetxean egonen dira, atxikitzeak arratsaldeko bostetatik seiak eta erdiak arte izanen dira.

- kurtso batetik behin behineko kanporaketa, honek Hezkuntz Aholkularia eta Zuzendariari idatzizko informazioa ondorioztatzen du ;
- Hirugarren behin behineko kanporaketak atxikitze bat ondorioztatzen ahal du.

Diziplinari loturiko zigorrak, Zuzendariak erabakiak

1. Abisua
 2. Gaitzespena
 3. Ardura harrarazteko neurria
 4. behin behineko gelatik kanporatzea
Denbora horretan ikaslea ikastetxean errezibitua da. Neurri hau gehienik 8 eguneko izan daiteke
 5. ikastetxetik 8 egun arteko behin behineko kanporaketa
 6. Ikastetxetik betirako kanporaketa
Neurri hauek atzerapenarekin aplika daitezke
- Barne Araudiak dizkion zigor guztiak, baita prebentzio, konpontze eta jarraipen neurriak ere.

B) Diziplina instantziak eta jardunbideak

Aparteko kasuetan, Zuzendariak berehalako zigor bat erabakitzea du eskubidea, burasoak jakinean atxikiz.

Zuzendariak du bakarrik ikasle bati zigor bat emaiten edota ikastetxetik behin behineko ala behin betiko kanporaketa erabakitzen.

Barne Araudian zerrendatuak diren zigorrak bakarrik aplikatzen ahal ditu, baita prebentzio, konpontze eta jarraipen neurriak hartzen ahal ditu ere.

Zuzendariaren gain da diziplinaren kontseilua biltzea beharrezkotzat jotzen duelarik.

Diziplina Kontseiluaren papera aholkuak emaita da : egoeraren argitzeko edo Zuzendariaren aholkatzeko bere erabakia har dezan, injustizia eta bidegabeko arriskuak saihesteko gisan.

Osaketa

Ikastetxearen Diziplina Kontseilua bederatzi pertsonen osatua da :

- Zuzendaria,
- Hezkuntz Aholkulari Nagusia,
- Ikastetxearen kudeantza eramaten duen elkartearen Lehendakaria,
- ikasleen burasoen hiru ordezkari, getetako burasoen ordezkarietarik bi eta Hezkuntz Taldeko burasoetarik bat,
